

5. GARAIA

ARTISTA ZARA?

Gaian sar zaitez
Testua uler ezazu
Obra osoa irakur ezazu
Irakurtzen eta idazten treba zaitez
Ahozkoa: uler eta adieraz ezazu
Idatz ezazu
Testu eta obren arteko loturak egin itzazu
Hiztegia aberats ezazu
Testu motak ezagut itzazu
Olerkiak, kantuak eta erran zaharrak

<i>OULIPO idazlan proposamenak</i>	Testu poetiko laburrak idaztea	84. or.
Prentsa eta lekukotasunak Gernikaren bonbardaketari buruz Gernika Picasso 1937 Gernika Jose Luis Zumeta 1937 Gernika Ken Zazpi 1996	Historiako gertakari bat eta horren eragina artean ulertzea	86. or. 88. or.
<i>Aingeru galduaren bila</i> Max Ducos	Arteari buruzko obra bat ulertzea	94. or.
	Irakurketa estereon	
Picasso-ren, Zumeta-ren eta DOM-en DOM-en elkarriketa	Obrak deskribatzea Artista baten sortze prozesua ulertzea	90. or.
DOM-ek sortutako kartak	Gaurkotasunari buruzko mezu bat idaztea	93. or.
	Arte eta sorkuntza gaia sakontzea	96. or.
<i>Gernika</i> artikulua eta Aingeru galduaren bila ipuinaren hiztegia	Prentsa erreportajeak irakurri aitzin hiztegia ikastea	98. or.
	Testu poetikoen ezaugarriak ezagutzea	99. or.
Ikaste buruzko olerkiak, kantuak eta erran zaharrak		100. or.



Gaian sar zaitez

Jarduera batzuen bidez testu poetikoak idatz itzazu.

Lescure karratua

Araua:

- 1) Lauki baten 4 izkinetan hitz bat idatz ezazu.
- 2) Hitz horiek balia itzazu edozein ordenatan erranaldi desberdinen idazteko.
- 3) Erranaldiak nahas itzazu testu baten sortzeko.

Edo aditz bat gehituz

Zaldiaren soka atearen itzalean.
Itzalean, zaldia eta soka atearen ondoan.
Zaldia, soka eta atea itzalean.
Itzalean, atearen gainean zaldia sokarekin.

Zaldiak soka jan du atearen itzalean.
Zaldia atearen itzalean sokarekin jostatzen da.
Zaldiak, itzalean, atearen soka tiratzen du.
Zaldiaren sokaren itzala atean marrazten da.

Lescure karratu bat

ate zaldi
soka itzal

tren ardi
lore leiho

poza paper
eltxo putzu

zapata irriño
nini txokolate

.....
.....

Alfabetoaren jokoa

Araua:

- 1) Hitz batzuk hauta itzazu. Hitz hori molda ezazu irakurtzen ez dakien norbaitek ulertzeko gisan: letrak marraz ditzakezu edo hitzaren zentzua indartzen duten itxurak marraztu.

busti aterpe marioffatza  Idea  dinua

Kobazula

- 2) Marraztutako 5 hitz hauta itzazu eta bost erranaldi dituen testu bat idatz ezazu (erranaldika hitz bat).

busti busti ak ginen

aterpe rik ez zen

 Idea rik ez zen

Kobazula ginen

Hitzen merkatua

Araua

- 1) Irakurri dituzun testuetan nahas-mahas 5 hitz edo hitz multzo bil itzazu: izen bat, aditz bat, izenondo bat, aditzondo bat eta erran-molde bat.
- 2) Dagozkien kutxetan ezar itzazu (Bost kutxa: izenak, izenondoak, aditzondoak, aditzak, erran-moldeak).
- 3) Zozketa egizu, kutxa bakoitzean hitz edo hitz multzo bat hartuz.
- 4) Hitz bilketa horretaz balia zaitez testu labur baten idazteko.



Aldagaia

Kutxa bakoitzaren aitzinean, dado bat bota dezakezu. Dadoan ageri den puntu bezainbat hitz har ezazu.

Olerki dadaista

Araua

- 1) Prentsan hitz anitz motz itzazu eta gutun azal batean bil.
- 2) 10 hitz har itzazu ausaz, eta erranaldi edo testu bat idatz.



La Gazette

DE BAYONNE, DU PAYS BASQUE & DES LANDES

DERNIERE EDITION

Bureaux : 17, rue Dider, — BILARRITZ

Téléphone 424-48 (3 lignes)

Chèque Postal Bayonne 11.261

Adresse télégraphique : Gazette-Bilarritz

La Publicité Régionale est reçue

exclusivement à l'Agence Havas

— Bilarritz, Bayonne, Bordeaux, Pau —

Hors Région : Bureaux du Journal et

dans toutes les Agences de Publicité.

46^e ANNÉE

MERCREDI

26

MAI 1937

N. 8833

«Guernica a été bombardé par l'aviation allemande avec des bombes allemandes»

DECLARE M. MAC KINNON WOOD
MEMBRE DE LA COMMISSION
D'EXPERTS BRITANNIQUES

Bilbao, 26 mai. — M. Mac Kinnon Wood, ancien chef du département des recherches aérodynamiques au ministère de l'air britannique, et membre de la commission d'experts anglais, qui est en train d'enquêter sur le bombardement de Guernica, communique les premiers résultats de l'enquête.

« Tous les témoignages, écrit M. Mac Kinnon Wood, indiquent que les bombes et les avions qui ont transformé le Pays basque en un enfer, sont exclusivement allemands »

« J'ai montré plus de cinquante photographies d'avions aux survivants de Guernica ; tous ont été capables de désigner les avions de chasse Heinkel et les avions rapides de bombardement Heinkel »

« Les bombes explosives et incendiaires trouvées à Guernica, portent la marque des aciéries de Rhénanie »

« Les bombes incendiaires sont datées de 1936, et sont d'un vieux modèle que l'on ne peut lancer avec une précision quelconque sur un objectif militaire défendu, mais qui sont efficaces si on les utilise pour le bombardement fait au petit bonheur des centres civils. »



Gernika bazen. Gaur txingar (brasa) eta errautsak besterik ez da. Une honetan sutan dago. Bonbardaketa oso bizia. Bonba su-eragileek guztiz hondatu dute. [...] Hamar mila emakume eta umek errepidetarik ihes egiten dute arratsalde honetan bezala bihar egunsentian hegazkinek metrailatuak izatearen beldur. Hondamendi honen aurrean eta Bilbo aste honetan ere suntsitzearen mehatxua gaur bertan egin digutenez egoeraren larriaz jabetzea baino ez dugu eskatzen...

Telesforo De Monzonen telegrama
1937ko apirilaren 27a

“Bonbardaketa amaitu eta gero, jendea babeslekuetatik irtetzen hasi zen. Inork ez zuen negarrik egiten. Beren aurpegietan harridura baino ez. Ezin genuen ulertu ikusitakoa. Iluntzean oraindik ezin zen ezer ikusi 500 metrotik harantz. Bazter guztietan zen sua eta kea, ke beltz eta lodia.”

Alberto de Onaindia. Hans Christian Kirsch-ek jasoa bere

1937ko apirilaren 26an, astelehenean, arratsaldeko 4ak eta erditan hasi zuten hegazkin erasoak. Espainol, Aleman eta Italiar faxistek Gernika herria bonbardatu zuten.

Kondor Legioa (alemana) eta Aviazione Legionarioko (italiarra) soldaduek herritar xumeak, zibilak, erasotzera etorri ziren, merkatu egunez. Sarraski izigarria izan zen, 2000 pertsona baino gehiago hil zituzten eta herria arras suntsitu arte ari izan ziren bonba aurtikitzen. Ihesi joaten ziren jendeak hegazkinez ihizatzen zituzten metrailetaz tirokatuz. Etxeen edo eraikinen %1 baizik ez zen zutik gelditu.

TELEGRAMA URUTIDATZI

27 FEB. 1937

27 abril 1937

URGENTISIMO



MONZON A PRESIDENTE CONSEJO MINISTROS
MINISTRO MARINA AIRE
IRUJO - MINISTRO REPUBLICA
LEIZAOLA - CONSEJERO EUZKADI - VALENCIA

COPIA

Guernica fué Punto Hoy no es más que brasa cenizas Punto En este momento arde todavía pueblo tres horas bombardeo intensísimo bombas incendiarias lo han destruido totalmente Punto Aldasoro, Torre, yo llegamos allí espantados Punto Diez mil mujeres niños huyen carreteras temiendo ser ametrallados por aviación mañana al amanecer como lo fueron esta tarde Punto Ante esta catástrofe con amenaza hecha hoy mismo destruir incendiar Bilbao esta semana solo suplicamos háganse cargo situación angustiosa.




Gernika 1937 - Pablo Picasso (1881-1973) - Olioa oihal gainean – 349x777cm - Reina Sofia Museoa Madril



Gernika 1937 – Jose Luis Zumeta (1939-2020) – Oihal gaineko olioa – 350x780cm - Reina Sofia Museoa Madril

" Pintura ez da apartamenduen apaintzeko egina, gerla tresna bat da, etsaien kontra borrokatzeko ala defenditzeko"



Gernikan

Javier Gardoqui
Josefina Solozabal
Aurelio Legarreta
Catalina Arrieta
Maria Luz Fierro
Agirre hamabi urte
Francisco Araluzea
Neskato erre bat,
Gernikan!

Regina Aldama
Ume identifika ezina
Aurelia Candes Lopez
Clara Zaldunbide
Gorputz zatiak
Germana Basabe Ormaetxea
Telesforo Elieobarrutia

Maria Santa
Bilbao Uriona
Behi zatia
Candida Amias
Agure baten gorputz errea
Catalina Barrena Barrena
Agapita Iturralde Zuloaga eta
Maria Iturralde Zuloaga,
Gernikan!

Asto behi gorputz zati
Neskato erre bat
Ume identifika ezina
Gernikan!

Daniel Ibarzabal
Catalina Arrien Jaio
Asto
Gorputz zati
Andreenekin nahastuta

Juana Beotegi Bilbao
Jacinta Gandiaga
Eta
Ehunka ume
Identifika ezinak

Ken zazpi -1996



Testua uler ezazu

1 Prentsa eta lekukotasunak irakur itzazu. Aipatzen duten gertakaria azal ezazu.

2 Gertakari horren ondotik artistak ekoiztu dute eta ekoizten dute gaur egun...
Obra batzuk azter itzazu.

a) Picasso eta Zumetaren obrak konpara itzazu.

- Zer ikusten duzu?
- Zer ulertzen duzu?
- Zer diozu obra horiei buruz?

b) **Gernikan** kantua

1937ko apirilaren 26a eguna ilun, triste eta negargarria izan dela erakusten dituzten seinaleak bil itzazu.



Ahozkoa: uler eta adieraz ezazu



Proiektuaren kariatara DOM, Urepeleko artista batek kartak horiek sortu zituen. Entzun ezazu proiektuaz zer dioen eta ondotik zure ikaskideekin kartak deskriba itzazu.









Idatz ezazu

Kartoizko leihotxo bat erabiliz, DOM-en karten zati bat hauta ezazu. Zati horretan bermatuz, gaurkotasunari buruzko mezu bat idatz ezazu. Zer defenditu nahi zenuke?


Erranaldi hastapenean, proposatu hitzak erabil ditzakezu zure irudimenaren martxan ezartzeko:

Gaur egun

Bihar ...

KARRAMARROA


Gaur egun karramarroa
hondartzan dabil.
Arroketan, itsas belarretan
gordetzen da.
Bihar ura aski garbi izanen ote da
haren bidaia segi dezan?





Obra osoa irakur ezazu


- 1 Eloi Arte Ederren museora doa bere ikastaldearekin... Hasta-peneko egoera uler ezazu eta pertsonaien pentsaketak idatz itzazu.



- 2 Aurpegi iluna duen gizon batekin mintzatu da Eloi. Haien solasaldia antzez ezazue.
- 3 Eloik abentura bitxi bat bizi du Arte Ederren Museoan. Eloiren abentura konta ezazu albumean irudi batzuk hautatuz.
- 4 Museoan ibiltzean, Eloik objektu batzuk bildu ditu. Zein objektu dira? Nork eman zizkion? Noiz baliatu ote ditu?
- 5 Margolan urdinean ibiltzen delarik Eloik pentsatzen duena idatz ezazu.
- 6 “Orduan, ipuinaren kontatzen hasi zen den mendreneko xehetasunetan, esplikatz zertako bigarren estaiko zizelkadura mehe luzea hautatu zuen, eta nola salbatu zituen, bera eta aingeru ttipia, margolan urdin neurrigabe liluragarritik.”
Binaka, elkarri konta iezaiozue Eloik konta lezakeena.
- 7 Bukaerako egoera uler ezazu eta pertsonaien pentsaketak idatz.
- 8 Max Ducos-ek ipuin horren bidez, zertaz gogoetaraz nahi gintuzke? Zure iritzia emazu, liburuko seinale batzuk kontuan hartuz.
- 9 Euskal artista batzuen obrak hauta itzazu eta margolan eta zizelkadura hori tan haur baten bidaia bat idatz ezazu.

10 Album hau irakurtzean, obra zenbait ezagutu dituzu. Entsea zaitez bakoitzari doakion zenbakiaren ezartzera.

- | | |
|---|---|
| 1. François Boucher, <i>Venusen loa</i> | 11. Jackson Pollock, <i>Lehena</i> |
| 2. Philippe de Champaigne, <i>Andreana Mariaren Zerura igatea</i> | 12. Nicolas Poussin, <i>Larrazkena</i> |
| 3. Alberto Giacometti, <i>Ibiltzen den gizona</i> | 13. Rembrandt, <i>Autopotreta</i> |
| 4. Paul Gauguin, <i>Alyscampseko hilerria</i> | 14. Auguste Rodin, <i>Pentsalaria</i> |
| 5. Yves Klein, <i>IKB71 California Monokromoa</i> | 15. Franck Stella, <i>Guti edo aski</i> |
| 6. Georges de La Tour, <i>Sortu berria</i> | 16. Alfred Sisley, <i>Sena Bougivalen</i> |
| 7. Piet Mondrian, <i>A Konposizioa</i> | 17. Diego Velázquez, <i>Kristo gurutzefikatua</i> |
| 8. Claude Monet, <i>Igebeldar-urmaela</i> | 18. Samotraziako <i>Garaipena</i> |
| 9. Berthe Morisot, <i>Pinpirin-ihizia</i> | 19. Leonardo da Vinci, <i>Azken afaria</i> |
| 10. Pablo Picasso, <i>Figura</i> | 20. Jan Vermeer, <i>Neska perladuna</i> |



A - ...




B - ...



D - ...




E - ...



F - ...




G - ...




H - ...




I - ...



J - ...




K - ...




L - ...



M - ...




N - ...



O - ...




P - ...



R - ...



S - ...



T - ...



U - ...



V - ...




Obren arteko loturak egin itzazu



Kristiñeren ibilerak - Bertso eguna / Itziar Olaizola Gorrotxategi, Jokin Mitxelena
© Denonartean, 2022

"Bertso Eguna da eskolan. Kristiñe emozionatuta dago, sorpresaz betetako eguna izango baita guztientzat. Euskal Herriko bertsolaririk onenak ere etorriko dira. Kristiñeren planak, ordea, hankamotz gelditzen hasiko dira. Nola biribilduko ote dun hire bertsoa, Kristiñe?"



Matilde / Sozapato
© Kalandraka, 2017

Mini album ilustratu formatuan, hiri handiko aurpegien eta kaleen artean ihes eginez, Matilde aurkituko dugu, patuak gauzak erraz nabarmentzen ez dizkion margolari ikastuna.



Chillida eta ni / Eli Landa
© Alberdania, 2009


Chillida artistaren biografia eta nozio liburua dugu honakoa.

Protagonista eskultore bat izanda, bere artelanekin batera, arte liburutzat ere jo dezakegu.



Pintzel magikoa / Didier Dufresne, Stephane Girel
© Ikas, 2014

Wang Li laborari familia bateko seme gazteena zen. Mendien oinetan bizi zen Txinako iparrean eta ahuntz talde txiki bat zaintzen zuen. Egunak luze baitziren, denbora basa natura begistatzen zuen eta kanpoa miresten....




Xalbador / Joxe Mari Aranalde, Mikel Casal
© Sendoa, 1999

Xalbador, Urepeleko Artzaina eta bertsolariaren biografia



Sagutxo Margotxo : / Stéphane Millerou, Quitterie Laborde
© Ikas, 2013

Auzoen harrabotsaz unaturik, Margotxo sagutxoak selaurua utzi du eta beste bizileku baten xerka abiatu da. Bidean animalia zenbait aurkitzen ditu, baina haietarik batek ere ez du aterpetzen ahal. Orduan, zeinek nahiko du egoitza partekatu eta bihotza zabaldu?



Zaldi urdin margotu zuen artista / Eric Carle
© Pamiela, 2012

“Zaldi urdin bat margotu zuen artista” espresionismoaren aitzindaria izan zen Franz Marc (1880-1916) aleman margolariari egindako omenaldi bat da. Haren “Zaldi urdina” margolana Eric Carle-ren liburu honen abiapuntua izan zen. Carle-k bere arte irakasle Herr Krauss-i esker deskubritu zuen Marc-en obra, erregimen naziak margotzeko joera hura debekatuta zeukan garaian.



Mundua pintatu zuen haurra / Javier del Amo, Alicia Cañas Cortazar
© Aizkorri, 1997

Bonba lodi bat erori zen lurrean eta eguzkia, ipar izarra, gainerako izarrak, ura, animaliak eta landareak suntsitu zituen. Errege-erreginak eta herrialdeetako agintariak astakiloak izan zirela konturatu ziren bonba lehertzen utzi zutelako eta irtenbideren bat bilatu behar izan zuten. Xabierrek, Hiru Pataten Haranean bizi zen haur magoak soilik konpon zezakeen arazo hura. Nola, ordea?, galdetuko duzue. Bere pintzelaz margotuz eta helduei egiten dutenarekin kontu gehiago izan behar dutela erakutsiz.




Van Gogh, bihotzean eguzkia / Xabier Gantzarain
© Txalaparta, 2002

Van Gogh bere belarria mozteagatik egin da ezaguna besteren bizitza ahotan erabiltzea asko maite duen gizarte honetan. Edo bere koadroen prezioagatik, zarenaren arabera ikusi beharrean daukazunaren arabera ikusten zaituen gizarte honetan. Produkzio itzela utzi zuen eta, gainera, asko eman zion munduari. egiratzeko modu berri bat erakutsi zigun, bihotzean eguzkia dugula ikusteko.



Margolaria / Gianni Rodari, Valeria Petrone
© Ibaizabal, 2008

Margolaria estu eta larri dabil ; behartsua denez, ezin kolore bat ere erosi. Zer egin, orduan ? Nola sortu bere margolanak, inork ez baitio laguntzen : ez Berde Nagusiak, ez Hori Nagusiak, ez Marroi Nagusiak ? Nola bihurtu bere egun ilunak distiratsu ?



Han Gan-en zaldi magikoa / Chen Jiang Hong,
© Ttartalo, 2006

Han Gan margolaria benetan existitu zen. Txinan bizi izan zen, duela mila eta berrehun urte baino gehiago. Haurra zenean, Han Ganen zaletasunik handiena marraztea zen. Zaldiak marraztea zuen gogoko beste ezereen gainetik eta bizi itxura ematen saiatzen zen beti.



Ez dakit marrazten / Eider Eibar
© Elkar, 2020

Zeure buruari behin baino gehiagotan esango zenion, beharbada, “... ez dakit marrazten!”. Horixe bera gertatzen zaio istorio honetako protagonistari. Hartu arkatza eskuan eta hasi jolasean... ikusiko duzu zer gertatzen den!

ABC Hizkuntza azter ezazu

Gernika - Prentsa

Borroka-lerro	
Suntsipena - Suntsitzea	
Egunsentia	
Jaurtigai	
Hondatu - Hondamendi	

Aingeru galduaren bila

Trebeska		Apoka		Mahats mulko - mahats pikor	
Hitsa (itxura hitsa)		Pulunpatu		Tanpez: kolpez, bat-batean	
Jauzkatu		Ukurtu = makurtu		Durduzatu	
Etsimendu		Den mendreneko: ttipi ttipi		Zimurtu	
Aments: bederen		Sargia		Itoka	
Andeatu		Hasperenka		Bere baitaratu: iratzarri, berpiztu	
Ahuspez		Erotzat		Haidorki	
Kirrinka		Menturatu: ausartu		Susperturik: azkarturik	
Eite		Oldar			



Testu motak ezagut itzazu

Solasaldia (elkarrizketa informala) eta elkarrizketa formal (interview bezala)

Testu poetikoak

Nahiz eta testu poetiko mota anitz izan, denek xede bera dute: mezu baten pasaraztea, giro baten sortzea, emozio baten sentiaraztea edo behin bakarrik irakurtzen edo entzuten den testuaz gozatzea.

Mota anitzetako egiturak izan ditzakete testu poetikoek, oinarrizko testuaren arabera (soneto, haiku, prosa, zortzikoa...).

Testu poetikoen idazteko, maiz hizkuntzaren forma ez ohikoan erabiltzen dira:

- Errimak, soinu jokoak.
- Hitz arraroak, konnotatuak edo asmatuak.
- Hizketako figurak, irakurlearengan sentimendu baten sorrarazteko: eztituz, hanpatuz, hitz zenbaitetan itzal puntu bat ezarri, edo beste batzuk argituz.

Errepikapena	Konparaketa	“Kontrako” hitzak	Irudia	Zerrenda
Musikaria zara zu, txisturik ez dauka- zu, mendian egiten duen musikaria zara zu.	Nik ere nahi nuke Izan urtxintxa bezala Hain gora hain trebe Izateko libre.	Hiztegian hitzak eta esanahiak, hiztegi itsusiak ipuin alaiak	Mantalin arin xuritan Lanoz beztu da kanpoa.	Aaaaaaaaaa Dio batak Eeeeeeeeeee Beste batek Iiiiiiii Horek intziri

Olerkiaren edukia testuan datza, baina ahotsean ere, errana delarik. Olerkia transmitzen du(t)en ahots(ar)en interpretazioak testuari adierazkortasuna ematen dio eta emozioei indarra.

Ozenki erran aitzin, olerkiak sakonki irakurri behar dira. Autoreak pasarazi nahi duen mezuaren ongi ulertzeko, olerkiaren elementu zenbait identifikatu behar dira: lekuak, pertsonaiak, giroa, sentimenduak, etab.

Olerkiaren erranahiaren agerian ezartzeko, eta interpretazio baten proposatzeko, erateko moldea hauen arabera alda daiteke:

Norekin Bakarrik? Denak betan? Binaka? Aldizka?	Indarra Azkar, goxo, gero eta azkarrago, gero eta eztiago ..	Bozaren tinbrea Mehe, ozen, gora, apal ...	Iraupena Zalu, emeki, fite abiatu eta bat-ba- tean emekitu ...	Beste isiltasuna, hatsa, espazioa, jestua
---	---	--	---	---

Olerkiak eta kantuak

Artista izan nahi duena

Artista izan nahi duena datorrela gurekin.
Txindatak jotzen hasteko, badaki non galde egin.
TXINDATA, TXINDATA, TXINDATA, TXINDATA,
TXINDATA, TXINDATA, TXINDATA, TXIN.

Artista izan nahi duena datorrela gurekin.
Turuta joko genuke indar guztiarekin.
TATARI, TATARI, TATARI, TATARI,
TATARI, TATARI, TATARI, TA.

Artista izan nahi duena datorrela gurekin.
Biolina jarri sorbaldan eta musikak egin.
ÑIÑIRI, ÑIÑIRI, ÑIÑIRI, ÑIÑIRI,
ÑIÑIRI, ÑIÑIRI, ÑIÑIRI, ÑI.

Artista izan nahi duena datorrela gurekin.
Txirula kaleetan eta mendian ere berdin.
TXIRULI, TXIRULI, TXIRULI, TXIRULI,
TXIRULI, TXIRULI, TXIRULI, TXI.

Artista izan nahi duena datorrela gurekin.
Orkestra bat egin eta a zer festak Euskadin!


Urbieta, Imanol

<https://www.youtube.com/watch?v=x3FVklPp2ZE&t=20s>

Tantaka

jausi egin zait
eskutatik arkatza
begira nago

Peru Magdalena



Haizea

Musikaria zara zu,
txirularik ez daukazu;
mendian txistu egiten duen
musikaria zara zu.

Eskultorea zara zu
mailurik ere ez daukazu;
dunak mugiarazten dituen
eskultorea zara zu.
Margolaria zara zu,
pinturarik ez daukazu;
udazkena gorrituko duen
margolaria zara zu.

Miren Amuriza (Irria aldizkaria
2020ko iraila)

Haien hitzak

Benito Lertxundi, Fermin Muguruza,
Aire ahizpak, Sutagar, Mikel Laboa,
Estitxu, Ganbara, Skunk, Egan, Ken zazpi,
Ruper Ordorika, Kaxiano, Errobi,
Gontzal Mendibil, Mikel Markez, Hertzainak,
Tapia ta Leturia, Joselu anaiak.

Alaitz eta Maider, Amaia Zubiria,
Imanol, Akelarre, Urko, Sustraia,
Berri txarrak, Patxi Saiz, Anje Duhalde,
Maite Idirin, Txakun, Xabier Lete,
Niko Etxart, Peio ta Pantxoa, Oskorri,
Txomin Artola, Guk, Mixel Labèguerie....

Errepika :

Hamar ala ehun urteren buruan | x 2
Haien hitzak oraino ahoan

Aritzak, Zea mays, Etxahun Iruri,
Maurizia, Otxalde, Beñat Achiary,
Erramun Martikorena, Minxoriak,
Maddi Ohienart, Sorkun, Negu gorriak,
Pier Pol Berzaiz, Anari, Antton Valverde,
Etxamendi, Larralde, Sorotan Bele. (errepika)

Jojo ta Ramuntxo, Itoiz, Kantiruki,
Gorka Knôrr, Xalbador, Ihidoy, Elaudi,
Xabaltx, Urdangarin, Urtz, bertsolariak,
Serbielle, Maialen, Hirigoien anaiak,
Kortatu, Bedaxagar, Iguzki lore,
Unama, Zaldibobo, Haurrock ta beste.. (errepika)

Philippe Albor / Patxi Arotçarena

<https://www.youtube.com/watch?v=HER36NI7dUU>

Mintzo naiz isilik

Txori ikusgaitzak dira
eta haur lokartuen ile artean
egin ohi dute habia.
Txori horiek eramaten gaituzte
lurralde urrunetara,
normalean ezinezkoak diren
lanak eta jolasak egitera.

Mintzo naiz isilik...

Juan Kruz Igerabide (ametsak)

Ideia bat

Bat: ideia bat daukat.
Bi: koaderno zuri.
Hiru: eseri eta isildu.
Lau: loak hartuko nau!
Bost: arkatzari kosk.
Sei: astindua margoei.
Zazpi: hona hiru marrazki...
Zortzi: ilargi bat eta bi espazio-ontzi!
Bederatzi: betaurrekoak erantzi.
Hamar: mar-mar!

Miren Amuriza (Irria aldizkaria 2020ko iraila)